


Aurkezten du:



Allegro Vivace

Operaren munduan zehar egindako bidaia magikoa

Gida didaktikoa



Gran Teatre del Liceu
Servei Educatiu

Francesc Llinares

2012ko Urtarrila

Aurkibidea

Aurkezpena	4
Ikuskizuna	4
Opera	5
Operaren jatorriak	5
Ahotsa	6
Ahotsen sailkapena	6
Emakume-ahotsak.....	6
Gizon-ahotsak.....	7
Rigoletto	7
Pertsonaiak	8
Argumentua	8
1. ekitaldia.....	8
2. ekitaldia.....	9
3. ekitaldia.....	10
Bitxikeriak	10
Ariketak	10
Entzunaldia: “Bella figlia dell’ amore” laukotea.....	10
Agerraldi baten simulazioa.....	12
Hizki zopa.....	13
L’ elisir d’ amore	13
Pertsonaiak	13
Bitxikeriak.....	14
Argumentua	14
1. agerraldia.....	14
2. agerraldia.....	15
Jarduerak	15
Pertsonaien izaera.....	15
Eztabaida.....	16
Osatzeko ariketa.....	16
Hizki zopa.....	17
L’ Italiana in Algeri	17
Pertsonaiak	17
Argumentua	18
Ariketak	19
Onomatopeiadun kontzertantea.....	20
<i>Rap</i> baten antzezpena.....	20
Beste jarduera batzuk	21
Mitologia operan	21
Orfeoren mitoa.....	21
Zer egingo dut Euridice gabe...?.....	22
Traviata	22
Orff taldea: “Brindis”.....	22
Antzezpen grafikoa	26

Allegro Vivace jokia.....	26
Jokoaren arauak.....	26
Antzerkitxo baten eraketa.....	28
Gurutzegrama.....	28
Operaren osagaiak.....	29
Harremanak.....	29
Eskema.....	30
Hiztegia.....	31
Irakas-baliabideak.....	33
Internet.....	33
Grabazioak.....	34
Bibliografia.....	34

Aurkezpena

Allegro Vivace 8 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduriko ikuskizun dibertigarria da, osagai edukatibo-didaktiko ugariak. Bere iraupena 75 minutukoa da gutxi gorabehera.

Gida didaktiko honetan harremana duten zenbait jarduera proposatzen dizkizuegu; operako zenbait pasarte txertatuta daude batzuetan eta ikuskizuna edo opera orokorrean hartuta besteetan. Jarduera didaktiko hauek ikasleak opera munduan murgiltzea dute helburu, Allegro Vivace ikuskizuna oinarri hartuta.

Allegro Vivace ikusle gazteei zuzendua dago baina bere adin tarterako helburu hezitzaile handia du. Horregatik, zailtasun maila ezberdinak dituzten ariketak proposatzen ditugu. Irakasleak bere ikasleei egokitzen zaizkien ariketak aukeratu beharko ditu eta, beharrezko ikusten badu, ariketa batzuen edukia moldatzeko aukera izango du, irakasmaila jakin batentzat moldatuz.

Proposatu ditugun ariketak mota ezberdinekoak dira: txirularekin, orff-ean edo ahotsarekin interpretatzeko piezak, hizki zopak, asoziazioak, gurutzegramak, osatzeko ariketak, analisisidun entzunaldiak, marrazteko eta margotzeko irudiak, jokoak, eta abar.

Gida honen amaieran, irakas-baliabideen atalean internet helbide zerrenda iruzkindua eta operari buruzko erreferentzi bibliografikoak aurkituko dituzue.

Ikuskizuna

Allegro Vivace ikuskizunarekin, operaren mundura gerturatzeko era berritzaile eta dibertigarria proposatzen digu Joan Font-ek (Comediants):

Neskatxa batek bere lagunekin festa *makina* bat egin nahi du. Lokal huts bat aurkitzeko bere ahaleginean, urte askoan itxita egon den biltegi antzeko eraikin batean sartzera ausartuko da. Bertan, *Vivace* izeneko pertsonaia bitxi eta antzerkigile batekin egingo du topo. Honek, biltegia zaintzeko ardura duela azalduko dio, operari lotuak dauden altxor guztiekin. Neskak, musikazale amorratua eta musika munduko azken joeren jakitun dena (Techno, Trip-Hop, Ska, Progressive...), ikara uneak pasatzean Vivaceri operari buruzko bere ezjakintasuna azalduko dio; ezjakintasun hau berriz, Vivacek musika munduko azken joerekiko duenaren antzekoa da.

Neskatxaren jakingura ikusirik, Vivacek opera munduko sekretu guztiak modu sutu, gogotsu eta era berean, ulerterrazean azaltzen saiatuko da. Operaren jaiotzari, zirrari, ahotsari eta operak kontatzen dituen istorioei buruz hitz egingo dio; zuzenean zein musikarekin oro har loturik dauden beste mila gauzari buruz ere hitz egingo dio. Neskaren operarako murgiltze bidea gidatzeko, Vivacek ahalik eta bitarteko gehien erabiliko ditu, era ia magikoz bere azalpenak opera ezberdinen zatiak osatuz. Ezagutzen ari den gauzekin liluratua dagoen neskatxak, berriz, berak hain ondo maite eta ezagutzen duen uneko musikari buruz hitz egingo dio Vivaceri, gogo biziz.

Joan Fontek (Comediants), Allegro Vivace lanarekin, ikusle gazteengan eragin nahi du musika ezagutzen goza dezaten. Ikuskizunaren ardatz nagusia opera eta operarekin zerikusia dutenak dira, baina azaltzen den historiak musika jorratzen du oro har, gustu aniztasuna eta joera musikalak jarrera bateratzailez jorratuz. Musikak liluratu gaitzake, hunkitu, harrapatu, dantzarazi edo gozarazi baina musika mota asko dago, genero eta estilo asko dago eta askotan, asimilazio prozesu bat jarraitu beharrean gaude. Garrantziak mundu guztiak musika ezagutzeko, entzutean, sentitzean datza: opera, jazza, rocka... mundu guztiak ezagutu eta gozatzeko aukera izan behar du eta gero, norberak aukera dezala. Ezin diegu entzule gazteei entzuteko eskatu guk geuk entzuten ez badiegu. Ikuskizunaren autore den Jon Font-ek horrela ulertzen du eta bi mundu ezberdin bizi dituzten bi pertsonaia azaleratzen ditu: *Vivace*, musikazale amorratua, opera biziki maite eta ezagutzen duena; pertsonaia hau garai kanpoko delatzena dela pentsa dezakegu agian baina garai zaharretara garamatza. Neskak, gaztea, dinamikoa eta bizia da; etorkizunari begira bizi den eguneko neskatxa papera irudikatzen du.

Berak ere, musikarekin gozaten du eta azken joera musikalak bizi ditu. Baina Vivacek zein neskak izendatzaile komun bat daukate: musikarekiko maitasuna. Obrak aurrera egin ahala, bien esperientzi, gustu eta jakinduria ezberdina izan arren, horrek elkarreagina eragotziko ez duela ikusiko dugu. Musika kutsatze honek bi pertsonaiak hein handi batean aberastuko ditu eta zeharka, gu geu ere aberastuko gaitu.

Ikuskizunean agertzen diren opera zatiak, ordena jarraituz:

1. **Traviata-Giuseppe Verdi (1813-1901)**. Preludioa. 1.ekitaldia
2. **Euridice- Jacobo Peri (1561-1633)**. Ritonello Strumentale. V.agerraldia
3. **Orfeo ed Euridice-Christoph Willibald Gluck (1714-1787)**. "Che farò senza Euridice".
4. **Orfeo- Claudio Monteverdi (1567-1643)**. "Lasciate i Monti", Ninfa e Pastori abesbatza. 1.ekitaldia
5. **Dido and Aeneas- Henry Purcell (1659-1695)**. "The Sailor's dance". 3.ekitaldia
6. **Don Giovanni- W.A. Mozart (1756-1791)**. "Giovinette che fate all'amore".
7. **La Damnation de Faust- Hector Berlioz (1803-1869)**. "Marche Hongroise".
8. **L'italiana in Algeri- Gioacchino Rossini (1792-1868)**. Lehen ekitaldiaren amaiera.
9. **Carmen- Georges Bizet (1838-1875)**. "Habanera".
10. **Rigoletto- Giuseppe Verdi (1813-1901)**. "Bella figlia dell'amore" laukotea eta amaiera.
11. **Turandot- Giacomo Puccini (1858-1924)**. "Amore, vita, eternità".
12. **L'elisir d'amore- Gaetano Donizetti (1797-1848)**. Pasarte ezberdinen aukera.
13. **Traviata- Giuseppe Verdi (1813-1901)**. "Brindis".

Opera

Hurrengo lerroetan Allegro Vivace ikuskizunean lantzen diren zenbait kontu laburki jorratuko ditugu.

Opera drama musikala da eta musikak argumentuaren garapenean eta sentimendu zein arima-egoeren deskribapenean funtsezko papera dauka. Hunkitzeko eta txunditzeko gai den artea da, bertan, pertsonaiek, grinak eta emozioak gerturatzen dizkigutelarik.

Opera dimentsio handiko ikuskizuna izan ohi da; ez soilik argumentu eta muntai eszenografiko batzuen ikusgarritasunarengatik edo agerraldi berean ikus dezakegun pertsonaia ugaritasunagatik (abeslariak, figurinak, koristak, dantzariak...). Horretaz guztiaz gain, edozein ikuskizun lirikoren ezaugarri nagusiak ere aurki ditzakegu, aipatutako guztiaz gainera, agertokian ikusten ez ditugun zenbait alde tekniko eta artistiko.

Opera osotasunetik sortutako artea da, musika, literatura, eszenografia, dantza, antzerkia... biltzen dituena. Bertan dramatik musikara joan gaitezke, baleta, kantua, dekorazioa, luminoteknia eta abar luze bat ikusiz. Aldi berean mintzaira ezberdinak erabiltzeak, mezuak balio eta esanahi handiagoa lortzea ahalbidetzen du.

Opera, batez ere, errepresentazio musikala bada ere, antzerkia ere oso garrantzitsua da, musikak azalpena eman arren pertsonaiak, baletak eta dekoratuak ere bertan baitaude. Horrelakoetan, abeslariak paper bat antzezteko jantzi eta makillatzen diren aktoreak ere badira eta, kantuarekin batera, tinbre, garaiera, *tempo* eta indar ezberdinak erabiltzen dituzte, bere pertsonaiari izaera emateko.

Operaren jatorria

Florentzian, XVI. mende amaieran, Bardi kondearekin batera bildu zen poeta, musikagile eta jakintsu talde batek *Camerata Fiorentina* sortu zuen. Hauek, tragedia grekoaren gaitasun adierazkorra eta balore estetikoak erreproduzi zitzakeen antzerki moduren bat islatzeko aukerarekin pentsatzen hasi ziren. *Camerata Fiorentina* osatzen zuten musikagile eta literatoek ziur zeuden musikak, konposizioak aitzakia bezala erabiltzen zituen hitzak goraiatzeko gai izan behar zuela, eta baita bertan aurki zitezkeen sentimendu eta ideiak islatzeko.

Helburua testuaren gaitasun komunikatiboa lortzea zen. Argumentu jakin baten garapenak ahalbidetu zezakeen antzezpen dramatikoa landu nahi zuten, bertan, pertsonaia ezberdinek abestuz lan egin zezaten hasieratik bukaerara arte. Horrek eman zion *opera in musica* izena.

Uste berri horren emaitza *Dafne* opera izan zen, Rinuccini (1562-1621) poetaren testuarekin eta Jacopo Periren (1561-1633) musikarekin egin zena. *Opera in musica* horren antzezpena 1594. urtean egin zen, Florentzian. Opera hau gugana iritsi ez denez, *Euridice* hartu ohi dugu lehenengo operatzat, Rinuccini poetaren testua eta Jacopo Peri eta Giulio Caccini-ren (1551-1618) musika dituen. Hala ere, Claudio Monteverdik (1567-1643) 1607an lehen artelana izendatua izan dena sortu zuen: *La favola d'Orfeo*.

Ahotsa

Kantua giza-ahotsa erabiltzeko modu bat da, fonazio-organoen jardura berezia eskatzen duena, eta horrekin lotuta, beste maila batean bada ere, entzumen-sentimena. Ahotsa, beste edozein musika-tresna bezala landu egin behar da potentzia, bizitasuna eta malgutasuna handitu nahi badugu. Ahotsa trebatzeko egiten den prozesuari inpostazioa deitzen zaio. Opera antzetzeko derrigorrezkoa da ahots *inpostatu* izatea. Musika herrikoia egitean berriz, ahots naturala erabiltzen da oro har.

Kantuaren balio artistikoak zenbait baldintza ditu: arnasketa, ahotsaren eta tinbrearen igortzea, fraseatzea eta adieraziaren xehetasunak.

Ahotsen sailkapena

Ahotsak sailkatzeko dagoen sailkapen naturalenak bi talde handi bereizten ditu: emakumezkoak eta gizonezkoak. Bere tesituraren (ahots mota batek era erosoan bete dezakeen nota multzoa, nota baxuetik altuenera) arabera emakumezkoen ahotsak soprano, mezzosoprano eta kontralto bereizten dituzte eta gizonezkoenak tenore, baritono eta baxu.

Emakumezkoen ahotsak

SOPRANO


Emakume ahotsen artean sopranoen ahotsa altuena da. *Rigoletto* (G. Verdi) operako Gilda edo *L'elisir d'amore* (G. Donizetti) operako Adina dira adibide horietako bi.



Soprano ahotsaren eremua

MEZZOSOPRANO


Mezzosopranoa sopranoaren eta kontraltoaren artean dagoen emakumezko ahotsa da. Batzuetan soprano dramatikoarekin nahas daiteke. Adibidez: G. Bizeten *Carmen* operaren Carmenen pertsonaia.



Mezzosoprano ahotsaren eremua

KONTRALTOA


Kontraltoen ahotsa emakumeen artean dauden ahotsen artean baxuena da. Gaur egun ez da ohiko ahotsa eta horregatik, askotan, mezzo-sopranoek kontraltoen lana egin behar izaten dute. Adibide aipagarri bat *Rigoletto* (G. Verdi) obrako Maddalena pertsonaiarena da.



Gizonezkoen ahotsak


TENOREA

Tenore ahotsa gizonezkoen artean dagoen ahotsik altuena da. Horren adibide *L'elisir d'amore* (G. Donizetti) operan Nemorino pertsonaiaren papera izan liteke edo *Rigoletto* (G. Verdi) laneko Dukearen pertsonaiarena.




BARITONOA

Baritonoen ahotsa gizonezkoen tarteko ahotsa da. Adibidez: Rigolletoren ahotsa *Rigoletto* (G. Verdi) operan edo sarjentu Belcoren pertsonaia *L'elisir d'amore* (G. Donizetti) operan.



BAXUA

Gizonezkoen ahotsen erregistroak duen ahotsik baxuena baxua da. *Rigoletto* (G. Verdi) laneko Sparafucile eta *L'elisir d'amore* (G. Donizetti) laneko Dulcamara.



Rigoletto

Rigoletto operak hiru ekitaldi ditu. Francesco Maria Piaveren libretoa dauka eta Victor Hugoren *Le Roi s'amuse* lanean oinarritua dago. Musika Giuseppe Verdirena (1813-1901) da. Veneziako La Fenice antzokian aurkeztu zen 1851ko martxoaren 11n.

Pertsonaiak

Mantuako Dukea.....	tenorea
Rigoletto (Dukearen bufoia).....	baritonoa
Gilda (Rigolettoren alaba).....	sopranoa
Sparafucile (sikarioa).....	baxua
Maddalena (Sparafucileren arreba).....	kontraltoa
Giovanna (Gildaren zerbitzaria).....	mezzosopranoa
Monterone kondea (noblea).....	baritonoa
Ceprano kondea (noblea).....	baxua
Marullo (Gortesaua).....	baritonoa
Borsa (Gortesaua).....	baritonoa

Argumentua

I.ekitaldia

Dukeak, bere jauregian, Borsa gortesauari esaten ari zaio badirela hiru hilabete neska bat elizan gorteiatzen duela. Neskak ez du Dukearen benetako izena ezagutzen eta Dukeak, urrutiko kale batean bizi dela eta gauero gizon misterioitsu batek bisitatzen duela besterik ez daki.

Dukeak Ceprano kondesarekin flirteatzen du eta Rigoletto, gorteko bufoi konkorduna Ceprano kondearen jeloskortasunaz trufatzen da.

Rigoletto eta Dukea jauregiaren beste alde batera joaten diren bitartean, Marullo, beste gortesau bat, Rigolettok amorantea duela esanez heltzen da. Berri horrek, bertaratutakoengan harridura eta barreak eragiten ditu eta Rigoletto izutua uzten du.

Dukea eta Rigoletto itzuli eta Cepranoko kondesa limurtzeko kondeak sortzen dion oztopoa aipatzen dio. Rigolettok, krudelki txantxa eginez, kartzelan sartzeko, erbesteratzeko edo burua mozteko aukera aipatzen dio, azken hau kondearen beraren aurrean esaten duelarik. Sutan, kondeak mendeku hartuko duela zin egiten dio. Une horretan bertan Monteroneko kodea iritsiko da sutu eta mindua, Dukeak bere alaba limurtu duelako. Dukeak Rigolettori bere buruaz barre egiten uzten dio eta gero bera espetxeratzeko agindua ematen du. Orduan Monteronek Dukearen eta bere bufoiaren kontrako maldizioa bota eta Rigoletto izututa uzten du.

Agerraldi aldaketa ematen da eta gaua sartzten ari dela Rigoletto etxerako bidean ikus dezakegu. Monterone Dukearen maldizioak arduratuta dauka. Sparafucile hiltzaile profesionala gerturatu eta bere zerbitzuak eskaintzen dizkio. Sparafucilek bere arrebak biktimak erakarri eta kanpoaldean dagoen ostatu bateraino eramaten dituela azaltzen dio. Rigolettok bere zerbitzurik behar ez duela esaten dio baina behar izanez gero nola aurkituko duen galdetzen dio. Sparafucile joan eta gero, Rigolettok bere lan dohakabea eta sikario lana alderatzen ditu: batek ezpatarekin zauritzen du, besteak mingainarekin.

Etxera sartzten denean Gilda aurkitzen du, bere alaba dena eta ez bere amorantea, Marullo gortesauari esan bezala. Rigoletto zerbait gertatuko zaion beldur da eta etxean sartua eduki ohi du. Elizara joateko bakarrik irten daitekeela gogorarazten dio. Azkenean, Giovanna zerbitzariari indar biziz esango dio Gilda unetxo batean ere bakarrik ez uzteko.

Rigoletto, zerbait entzun duelakoan, zer gertatzen den begiratzera irtengo da. Dukea, aukera aprobetxatuz, patioan sartuko da. Etxezainak Dukea ikusiko du baina honek, diru poltsa baten

truke, ethezaina isilarazi eta ezkutatu egingo da. Rigoletto Gildari agur egitera itzuliko da eta horrela, Gilda bufoiaren alaba dela jakingo du Dukeak.

Gildak, elizan ikusi duen gazte batekin maitemindua dagoela esango dio Giovannari. Aitorpen hau egiten ari den bitartean, Dukea agertu eta Gualtier Maldé izeneko ikaslea dela esan eta bere maitasuna agertuko dio Gildari. Etxe kanpoan pausuak entzuten dituzte eta Gildak, kanpora irteteko erregutzen dio Dukeari, bere aita izan daitekeen beldur baita.

Gortesau talde bat zen zarata egiten ari zena, eta ustez Rigolettoren amorantea zen Gilda bahitzeko asmotan zebiltzan.

Rigolettok gortesauekin topo egin eta hauek Cebranoko kondesa bahituko dutela esaten diote. Rigolettok, pozik, beraiekin bat egiten du. Rigoletto maskaratzeko aitzakiarekin begietan hesgailua jarri eta Gilda bahitzeko erabiltzen duten eskailera eutsarazten diote. Rigoletto engainatua dela konturatzen denerako beranduegi da, Gilda desagertua dago jada. Larritasunez, Monteroneren biaoa gogoratzen du.

II. ekitaldia

Dukea, bahiketari buruz ezer ez dakiena, jauregira harrিতuta itzultzen da, Rigolettoren etxera joan denean ez duelako Gilda aurkitu. Orduan, gortesauak iritsi eta harrotasunez, Rigolettoren “amorantea” bahitu eta jauregira ekarri dutela iragartzen diote. Dukea, bahitutakoa Gilda dela ohartzen da eta korrika, bera ikustera doa.

Rigoletto bere betiko zinismoa erakutsiz iristen da, nahiz eta bere alaba aurkitu nahiak larritasun handia eragin. Morroi batek Dukea lanpetua dagoela esaten dio, hitz horiekin beste zerbaite esan nahi duela adieraziz. Rigolettok bere susmoak egi bihurtuta ikusten ditu; Dukea Gildarekin dago eta haserre biziz, alaba ekar dezatela eskatzen du.

Gortesauak bahitu duten neskata nor den jakin dute baina ez dute atzera egiten, Rigolettoren hasierako irainak eta erreguak aditu arren.

Gilda agertzen da eta aitaren besoetan gertatutakoa kontatzen du. Rigoletto alaba lasaitzen saiatzen ari dela Monterone agertzen da. Monterone nahigabetua dago, Dukearen kontra egindako biaoak ez baitu ezertarako balio. Rigolettok, Dukeari mendeku hartuko diola ziurtatzen du, Gildak barka dezala erregutu arren.

III. ekitaldia

Rigolettok Dukea ostatura erakarri du, bertan Sparafucilek hil dezan; bere alaba ere eraman du, Dukea benetan nolakoa den ikus dezan. Ostatu kanpotik barruan gertatzen ari dena ikusiko dute biek. Dukeak Maddalenarekin (Sparafucileren arreba) flirteatuko du eta besarkatzen saiatuko da. Gildak, kanpotik, harrিতuta begiratuko du eta Rigolettok bere mendeku gogoia handituko du. Rigoletto, Dukea hiltzen denean gaua arriskutsu bihurtuko delakoan dago eta gizonez mozorrotu eta Veronara joateko agindua emango dio Gildari, gero han elkartuko direla esanez.

Rigolettok, adostutakoaren erdia Sparafucileri ordaindu eta gauerdian itzuliko dela esaten dio, Dukearen hilotza jaso eta gainerakoa ordaintzeko.

Kalean ekaitza lehertzen da eta Dukeak gaua ostatuan pasatzea erabakitzen du. Madalenak Dukea bere logelan ikusten duenean, bere erakargarritasunak txunditua, Dukea hil beharrean Rigoletto hiltzeko eskatzen dio anaiari. Sparafucilek ezekoa ematen dio, “bezeroa” hiltzea, hiltzaile “zintzo” baten jokabidea ez dela uste baitu. Hala ere, bertan dagoen edozein gizonek gauerdia baino lehen Dukea ordezkatzeko onartzen du.

Gilda, bere aitaren aginduei jaramonik egin ez eta ostatura itzuli da. Bertan, bi anaiek eskuartearen dutena entzuten du eta Dukea salbatzeko, bere bizia ematea erabakitzen du. Gizonez mozarrotu eta atea jotzen du. Sparafucile ate atzean dago, bere zain.

Ekaitza baretu da. Sparafucilek Rigolettori hilotz bat daukan zaku bat eman eta hau, pozik, errekarara abiatzen da itsasora botatzeko. Hilotza uretara botatzera doanean, Dukearen ahotsa entzuten du urrunean. Etsita, zakua ireki eta bere alabaren gorpua ikusten du, hiltzorian. Gildak barkamena eskatzen dio eta hil egiten da. Rigolettok, lur jota, Monteroneren biaoa gogoratzen du, bere gainera erori den biaoa.

Bitxikeriak

- Victor Hugok Rigoletto ikustea onartu zuenean (hasieran Frantzia ez aurkezteko ahaleginak egin zituen) oso harritua gelditu zen eta hirugarren ekitaldiko laukoteari buruz horrela esan zuen: “ *nire lanetan lau pertsonaiek aldi berean hitz egitea eta ikusleek sentimenduak eta hitzak ulertzea lortuko banu, efektu bera lortuko nuke* ”.
- Lanak lortutako sona eta *Bella figlia dell’amore* laukotearen melodia-edertasuna zela eta, Franz Lisztek bertan oinarritutako piano lan bat konposatu zuen, *Rigolettori buruzko 29 zenbakiko Fantasia*.

ARIKETAK

Allegro Vivace ikuskizunean opera dramatiko honen 3.ekitaldia antzezten da. Proposatzen dizuegun ariketetako bat ekitaldi honetako laukotea entzun eta aztertzea da.

Entzunaldia: “*Bella figlia dell’amore*” laukotea

Laukotearen entzunaldia egitean musikak drama nola nabarmentzen duen eta pertsonaiak emozioak nola transmititzen dituen azpimarratzea garrantzitsua da.

Bella figlia dell’amore (III.ekitaldia) laukotea Verdiren lanaren pieza nagusienetakotzat hartua izan da. Dukeak, musikal eta dramatikoki duen papera ere aipagarria da: Rigolettoren mendekuaren ustezko biktima. Madalenak, Sparafucile hiltzailearen (Rigolettok Dukea hil eta mendeku hartzeko kontratatu duen gizona) arrebak, Dukea ostaturaino erakarri du. Honek azpikeriari buruzko ezer ez daki eta ahots nagusia berea izango da. Bizitasun handia erakutsiz laukotearen lehen bi zatiak Maddalena limurtu nahian emango ditu. Bere arinkeriak Rigolettoren mendeku asmoarekin eta Gildaren desengainu mingarriarekin kontrastatuko du.

Agerraldian bi pertsonaia ostatu barruan agertuko dira (Dukea eta Maddalena), kanpotik beste bi pertsonaia (Gilda eta Rigoletto) haiei so daudela jakin gabe. Rigolettok Dukea nolakoa den ikus dezan eraman du Gilda hara.

Dukeak hasiko du pieza hau, Maddalenarekiko bere maitasun berria harroki azalduz.

The image shows a musical score for the Duke's aria "Bella figlia dell'amore". It is written in G major, 4/4 time, and begins with a piano (p) dynamic. The melody is in the treble clef. The lyrics are: "Be - lla hi - ja del a - mor soy es - cla - vo de tu en - can - to". The score includes a fermata over the final note of the phrase.

Madalenak esaldi *staccata* batekin erantzuten dio, irtirinki.

Maddalena

Ja, ja! No - ble ca - ba - lle - ro tus pi - ro - pos me dan ri - sa

Jarraian, ostatu kanpotik, Gildaren ahotsa entzungo dugu, nota altu batekin hasiz eta esaldian bi etenaldi motz eginez jaitiera azkarra egingo du. Gilda, Dukea traizio egiten ari zaiola ulertzen hasten da.

Gilda

Ay! _____ a - sí _____ ha - blar _____ de a - mor _____

Maddalenak eta Gildak esaldiak errepikatu ondoren Rigoletto taldeari elkartzen zaio, Gilda kontsolatzen saiatuz.

Rigoletto

Ca - lla, el lla - to no te va - le

Jarraian, lau ahotsak batera entzun ditzakegu, banakotasuna mantenduz. Dukea eta Madalena beren melodia txandakatzen ari direla dira, flirtatu bitartean. Gildak (ahots altuarekin) eta Rigolettok (ahots baxuagoa) erritmo paraleloak jarraituz abestuko dute, baina kontrako mugimenduak egingo dituzte.

Gilda
Mi _____ co - ra - zón

Maddalena
Ja, ja! No - ble ca - ba - lle - ro tus pi - ro - pos me dan ri - sa

Duque
E - lla hi - ja del a - mor _____ soy es - cla - vo de tu en can _____

Rigoletto
Que él men - tí - a

Laukotearen azken zatian, Gildak, amasestu efektua eginez, nota motz eta etenaldi laburrak txandakatuko ditu; Madalenak nota bakarra errepikatuz barre egingo du; Dukeak bere linea melodikoa jarraituko du eta Rigolettok armoniaren baxua antzetzuko du, Do sostenido luze batekin aldizkatzen dituen nota motzak errepikatuz. Laukoteko ahotsak, ez dute soilik bere banakotasuna melodikoki eta erritmikoki mantentzen, adierazten ari diren emozio mota ere

ezberdina baita. Pieza trinkoa bada ere, pertsonaien ezberdintasun psikologikoa azpimarratzen da.

Gilda
Mi co-ra zón des ga-rra - do-por an-gus - tia-si - si va a es - ta

Maddalena
Ja ja ja ja Ri - o-se-ñor Ja ja Ri

Duque
Ahl con un ges - to tu po

Rigoletto
Hoy-tu pa-dre a-quí te ju - ra la ven-gan-za cul-mi

Ohiko grabaketetan laukotearen ahotsak ezin bereiz daitezkeenez, pertsonaia bakoitzak antzezten duena bereizita entzutea gomendatzen dizuegu eta, gero, laukotearen grabazioa zenbait aldiz entzun dezatela, lau ahotsak bakar bezala entzun ditzaten. (cd:material didaktiko osagarria)

Agerraldi baten simulazioa

“*Bella figlia dell’amore*” laukotearen testua oinarritzat hartuz, ikasleei lauko taldeak egiteko proposatu eta bakoitzak lau pertsonaietako bat aukeratu eta antzezpena egin dezatela proposatu, pertsonaia bakoitzaren emozioa eta izaera nabarmentzen saiatuz. Beste aukera bat, laukotearen grabazioa entzun bitartean antzezpen mimikoa egitea izan liteke.

DUKEA

Amodioaren alaba eder
Zure xarmaren preso naiz,
Keinu batekin nire penak
Penak eta zorigaitzak arinduko dituzu.
Zatoz eta nire bularretik entzun
Nire ohiko taupadak

MADDALENA

Kar-kar! Jaun zintzo
Zure hitz ederrek barrea eragiten didate
Zuen jokoen balioa
Sinis ezazu, estimatzen dakit
Jakintsua naiz, lausengari
Zure txantxa leunekin

GILDA

Ene! Horrela hitz egiten du maitasunaz!
Gauza berak, doilor, niri esan dizkidate!
Larridurak itotako nire bihotza
Eztanda egitear dago.

DUQUE

Bella figlia dell’ amore
Schiavo so de’ vezzi tuoi
Con un detto sol tu puoi
Le mie pene consolar.
Vieni e senti del moi core
Il frequente palpitar.

MADDALENA

Ah, ah, rido ben di core,
Che tai baie costan poco
Quanto valga il vostro gioco
Mel credete, so apprezzar
Sono avvezza bel signore,
Ad un simile scherzar.

GILDA

Ah, così parlar d’amore
A me pur l’infame ho udito!
Infelice cor tradito,
Per angoscia non scoppiar.

RIGOLETTO

Taci, taci il piangere non vale
Che’ei mentiva sei sicura
Taci e mia sarà la cura

RIGOLETTO

Isil zaitez, negarrak ez dizu balio.

Ez du baliorik ez.

Berak gezurra zion, gezurra zion

Hori argi dago

Gaur hemen zure aitak zin dagizu

Mendekua burutuko duela.

La vendetta d'affiettar.

Sí, pronto fia sará fatale

lo saprollo fuminar.

Hizki zopa

Rigoletto operako 5 pertsonaien eta musikagilearen izenak bila itzazu.

R	H	F	P	B	P	Y	W	C	A	C	I
O	I	V	L	C	D	I	K	I	M	H	E
L	H	G	V	Z	U	X	N	Y	A	W	Y
F	L	N	O	T	K	J	U	C	D	O	Y
S	C	Q	U	L	E	O	Y	W	D	U	I
E	Q	T	S	F	A	S	W	T	A	N	O
A	D	L	I	G	E	T	D	O	L	K	G
Q	V	E	R	D	I	A	T	X	E	D	R
F	L	G	F	L	R	V	R	O	N	Y	N
M	X	M	G	T	D	Z	K	J	A	R	T
S	P	A	R	A	F	U	C	I	L	E	R
V	T	K	J	H	P	B	J	R	I	M	P

L'elisir d'amore

Gaetano Donizettiren (1797-1848) musika eta Felize Romaniren libretoa duen bi ekitaldiko opera da. 1832ko maiatzaren 12an aurkeztu zen Milango Canobbiana antzokian.

Pertsonaiak

Nemorino: Mutiko gazte, txiro eta oso lotsatia da; gainera, ez dirudi oso azkarra denik. Adinarekin zeharo maitemindua dago eta bere maitasuna lortzeko edozer egiteko prest egongo da. Tenorea

Adina: Gazte aberats, eder, azkar eta jario handikoa da. Badaki Nemorino berarekin maitemindua dagoela baina ez dio kasurik egiten, mutilak sufritzea nahiko luke. Sopranoa

Dulcamara: Mediku-ibiltaria dela esanez aurkezten du bere burua. Dioena baino, maula-egilea da gehiago, gaitz guztiak sendatzen dituzten edabeak saltzen baititu, benetan edabe horiek ezertarako balio ez badute ere. Baxua

Belcore: Herrian dagoen soldadu-talde txikiaren sarjentua da. Harroputza eta ahoberoa da. Berak ere Adina aberatsarekin ezkondu nahiko luke. Baritonoa

Gianetta: Adinaren zerbitzarietako bat da. Ez du parte hartze handirik ekintzan.

Soldaduak, nekazariak eta herritarrak: Ez daukate parte hartze handirik ekintzan. Pertsonaia nagusiei gertatzen zaizkien gauza arraro guztiak ikusi eta beraien artean hitz egiten dute.

Bitxikeriak

Pertsonaian batzuen izenak ez dira kasualitate hutsa. Nemorino, adibidez, hitz italiarra da eta “basoetako gizona” esan nahi du eta hemen gizon sinple, inozo eta umil bezala ulertu behar dugu. Era berean, “dulcamara” aipa dezakegu, italiarrez berritsu eta petrikilo esan nahi duena.

“Belcore” hitza argiagoa da, “bihotz polita” ez daukala gutxi gorabehera. Izen hori bere burua eder eta hutsik gabeko seduktore ikusten duen harropuztat egokia da.

Argumentua

Amaiera zoriotsua duen istorio komiko honek desiraz, maitatuak sentitzeko dugun beharraz, baztertuak sentitzeak sortzen digun minaz eta maita gaitzaten batzuetan egiten ditugun zentzugabekeriez hitz egiten digu.

Elixirren mitoez ere hitz egiten du, filtroak (edabe magikoak) dituzten xarabe antzekoak, edabe edo afrodisiakoak; magikoak direla sinetsarazten digute, baina, benetan, maialak izan ohi dira gehienetan.

I. ekitaldia

Adina gazte eta aberatsa nekazari-talde bati Tristan eta Isoldaren istorioa ozenki irakurtzen ari zaio. Tristanek (zaldunak) Isoldaren maitasuna elixir zoragarri baten eragin magikoei esker lortu zuela adierazten da.

Jendearen artean, ezkutuan, Aninarekin maitemindua dagoen mutil txiro eta lotsatia dago; elixir hori lortuko balu Adinak bera maite izatea lortuko lukeela pentsatzen ari da.

Belcore sarjentua, bere soldadu txikiaren buru dela iritsi, Adina limurtu eta berarekin ezkontzeko eskatzen dio. Neskak ez dio kasu handiegirik egiten.

Bakarrik gelditzean, Nemoniok Adinarekin hitz egiten du eta bere maitasuna aitortzen dio. Neskak ahazteko esaten dio, berak ez baitu maite.

Jarraian Dulcamara doktorea iristen da, herriz herri ibiltzen den gizon berritsua. Berak dioenez, gaitz guztiak sendatzen dituen edabeak egiten ditu eta horiek eskaintzen ditu herriz herri.

Bakarrik geratzea lortzen duenean, “Isolda erreginarene elixirra” duen galdetzen dio Nemorinok; Dulcamarak, Nemorino dena sinisten duen inuzentea dela ikusita, ardo botila bat saltzen dio, elixir famatu hori delakoan. Edateko esaten dio, eta hurrengo egunean (Dulcamarak, bera jada urruti egongo dela pentsatzen du) emakume guztiak berarekin maiteminduko direla ziurtatzen dio.

Nemorinok elixirra edaten du eta lortzen duen gauza bakarra, erdi mozkortzea da.

Adina iristen da eta Nemorinok, hurrengo egunean Adina berarekin maitemindua egongo dela uste duenez, Adina sufriaraztea erabakitzen du eta axolagabe tratatzen du.

Belcore iristen da eta Adinak, Nemorino jelsokortzeko, sei egunen buruan Belcorearekin ezkonduko dela iragartzen du. Nemorinok barre egiten du.

Belcorek eta bere soldaduek hurrengo egunean alde egin beharko dutela iragartzen dute. Hori ikusirik, ezkontza egun horretan bertan ospa dezatela eskatzen dio sarjentuak. Egoera horrek Nemorino biziki larritu duela ikusirik, baiezkoa ematen dio: berehala ezkonduko dira.

Nemorinok itxaropena galtzen du: elixirrak efektu egiterako, Adina Belcoreekin ezkontua egongo da.

Guztiak barre egiten diote mutil gazteari negar artean, Adinari oraindik ez ezkontzeko esaten baitio, egun bat itxaroteko.

II. ekitaldia

Adina eta Belcoreren berehalako ezkontza ospatzeko festa bat egiten ari dira guztiak. Nemorino, etsita, Dulcamara doktoarearen bila joaten da eta elixirren efektuak aurreratzeko zer egin dezakeen galdetzen dio. Dulcamarak edabearen beste dosi bat hartu behar duela esaten dio.

Nemorinok ez dauka dirurik eta Dulcamarak esaten dio, dirurik ez badu ez diola elixirrik emango.

Mutilak Belcore topatzen du eta honek esaten dio armadan sartzen bada berehala 20 ezkutu jasoko dituela. Behar duen dirua lortzeko, Nemorinok bere askatasuna saldu eta armadan izena ematen du. Dirua eskutan duela, Dulcamararen bila abiatzen da korrika.

Gianettak herriko neskei Nemorinoren osaba hil dela esango die eta herentzian dirutza handia jaso duenez, herriko gizonik aberatsena bihurtu dela. Guztiak, Nemorino oso gizon erakargarria dela pentsatzen hasten dira.

Bere aberastasun berriari buruz ezer ez dakien gaztea itzuli egiten da; beste elixir pote bat edan du eta harrituta, neska guztiak bera limurtu nahian dabiltzala ikusten du.

Adinak harriturik egoera begiratzen du eta Dulcamara, bere asmakizunak lortu duenarekin harrituta, Adinari elixirren istorioa azaltzen dio, eta nola Nemorinok, beste pote bat erosteko, armadan izena eman duen. Nemorinoren maitasuna neurrigabea ikusirik, Adina hunkitu egiten da.

Dulcamarak neska ere maitemindua dagoela ikusten du eta elixirra berari ere saltzea proposatzen dio, baina berak, maitatua izateko ez duela elixirrik behar erantzuten dio.

Nemorinok eta Adinak topo egiten dute. Neskak Belcoreri berrerosi dion kontratu militarra ematen dio, aske utziz. Gazteek, azkenean, bere maitasuna aitortzen diote elkarri.

Belcore iristen da eta bi maiteminduak ikusten ditu. Adinak, Nemorino bere benetako amodioa dela esaten dio. Samindurik, ez dela ezer gertatzen esaten dio Belcorek, bera bezalako gizon bati ez zaiola inoiz maite izango duen neska ederrik faltako. Dulcamarak mundu guztiari bere elixirrak eragiten dituen "mirariak" azaltzen dizkio.

Ariketak

Pertsonaien izaera

Elkartu pertsonaia bakoitza bere deskribapenarekin.

Nemorino

Mirariak aginduz, jendeari botikak saltzen dizkion maula-egilea. Edabe horiek gaitz guztiak sendatzen omen dituzte baina benetan, ez dute ezertarako balio.

Adina	Harroputza eta ahoberoa, berak ere Adina aberatsarekin ezkondu nahiko luke
Dulcamara doktorea	Mutiko gazte, txiro eta oso lotsatia da; gainera, ez dirudi oso azkarra denik. Adinarekin zeharo maitemindua dago eta bere maitasuna lortzeko edozer egiteko prest egongo da.
Belcore Sarjentua	Gazte aberats, eder, azkar eta jario handikoa da. Badaki Nemorino berarekin maitemindua dagoela eta bera sufritzen ikusiz gozatzen du.

Eztabaida

Klasean eztabaida sor lezaketen 4 galdera proposatzen ditugu ariketa honetan:

- Maitasun-elixirrak badirela uste duzu?
- Zein abantaila eta desabantaila aurki ditzakegu gauzak hitz eginez (antzerkia) ala abestuz (opera) esaten baditugu?
- *L'elisir d'amore*, istorio komikoa ala sentimentala da?
- Nor da aberatsago, musika mota askorekin ongi pasatzeko gai dena ala musika mota gutxi batzuekin baino goatzeko gai dena?

Osatzeko ariketa

Osa ezazue hurrengo pasartea amaieran agertzen diren hitzekin

L'elisir d'amore Gaetano _____ konposatutako opera _____ da. _____ hirian aurkeztu zen eta autore _____ XIX.mendeko lanik ezagunenetakoa izan zen.

Lan honetako paper garrantzitsuenak bi dira: Nemorino, _____ ahotsa duena eta _____, soprano ahotsa duenarentzat sortua.

Argumentuak neska baten maitasuna lortzearren gazte batek egiten duena kontatzen du. _____ doktorea deitzen duten berritsu bati edabe magiko bat erosten dio, _____ bat; egiazki, _____ botila bat baino ez da.

Nemorinok, Belcore sarjentuarekin lehiatu beharko du neskaren maitasuna lortzeko.

Lan honetako pasarte garrantzitsuenetako bat _____ abesten duen "Una furtiva lacrima" _____ da.

Lan honetan zenbait pertsonaiek batera abesten dute zenbaitetan. Hauei _____ deritze. Duoak eta trioak ere badaude.

Adina, aria, bufo, kontzertante, Donizetti, Dulcamara, elixirra, italiarra, Milan, Nemorino, tenore, ardoa.

Hizki zopa

Aurki itzazu hizki zopa honetan *L'elisir d'amore* operako konpositore eta pertsonaia nagusien izena.

G	P	O	N	C	Z	E	X	S	I	A	T
A	K	R	I	W	S	B	Ç	O	K	Q	D
E	O	P	B	H	B	E	L	C	O	R	E
T	A	N	I	D	A	L	E	L	R	T	K
A	R	E	A	E	R	T	N	L	R	E	D
N	P	B	O	X	S	L	Z	I	N	X	O
O	P	A	M	E	P	A	P	O	M	O	X
D	T	G	Y	S	T	P	N	M	L	P	A
O	I	I	R	I	N	I	I	T	M	R	R
N	T	A	R	E	R	A	V	Y	A	Y	E
I	N	N	T	O	K	R	I	M	R	A	T
Z	E	N	M	R	O	T	A	E	S	A	I
E	A	E	A	I	T	C	D	U	L	W	B
T	N	T	S	R	L	V	M	Z	O	A	C
T	T	T	O	U	L	A	N	R	I	K	R
I	R	A	D	A	P	M	U	O	T	I	S

L'italiana in Algeri

Bi ekitaldiko opera bufo honek Gioacchino Rossiniren (1792-1868) musika eta Angelo Anelliren libretoa du. Veneziako *Teatro San Benedetto*n aurkeztu zen, 1813ko maiatzaren 22an.

Pertsonaiak

Isabella (dama italiarra).....mezzosopranoa
Lindoro (italiar gaztea, Mustafaren morroi gogokoena).....tenorea
Mustafa (Argeliako hiri bateko gobernadorea, bey-a).....baxua
Taddeo (Isabellaren mireslea).....baritonoa
Elvira (Mustafaren emaztea).....sopranoa
Zulma (Elviraren konfiantzazko morroia).....mezzosopranoa
Haly (Kortsario argeliarren kapitaina).....baxua

Argumentua

I. ekitaldia

Argelen, Mustafa bey-aren jauregian, bere emazte Elvira kexaka ari da, senarrak ez baitu maite. Mustafak emaztearekin nekatua dagoela dio eta gogokoen duen morroia, Lindoro italiar gaztea, Elvirarekin ezkontzera behartuko du. Gero bere zerbitzuetara dagoen kortsarioen kapitainari sei eguneko epean emazte italiar bat lortzeko eskatuko dio, bere hareneko emakumeak baino interesgarriagoa izango den emakumea.

Lindoro, bestalde, kexaka dabil, aspaldi bere maitearengandik urrun baitago. Mustafak ezkondu nahiko lukeen galdetzen dio. Lindorok, egoera saihestu nahian, bere emaztegaiak dohain asko izan beharko lituzkeela esaten dio. Hala ere, Mustafak Elviraren dohain guztiak zerrendatzen dizkio, eta Lindoro ezin erantzunda uzten du.

Itsasertzean, hondoratze baten berri izan dute eta Isabella, Lindoro mutil-lagunaren bila zebilen neskatxa, pirata argeliarrek harrapatu dute. Arriskutsua izan arren bera gizonak hezteko duen abileziaz ziur dago. Piratak gizon zahar batek laguntzen diola jakiten dute, Taddeok. Isabellak bere iloba dela eta Italiatik datozela esaten die piratei, horrek Haly pozten du eta hareneko neskarik gogokoena izango dela promes egiten dio. Bakarrik gelditzerakoan, Taddeok Isabellari beregan sentitzen duen maitasuna erabili duela esaten dio, Lindoro aurkitzen laguntzeko baliatu duela aurpegiratzen dio eta egoera horretaz kokoteraino dagoela gaineratzen dio. Biek banantzea erabakitzen dute, baina berehala konturatzen dira hobe izango dela elkarrekin jarraitu eta osaba ilobarena egiten jarraitzea.

Mustafak Lindorori zin egiten dio Elvirarekin ezkontzea onartzen badu Italiara itzultzeko baimena emango diola. Elvirak, hala ere, ez du bere senarra utzi nahi, oraindik maite baitu. Orduantxe Haly iristen da eta italiarrarekin amets egin duela esaten dio bey-ari. Mustafa oso pozik dago horrelako emakume sutsu bat maitatzeko aukeraren aurrean.

Mustafa Isabella bere jauregian hartzeko prestatzen da. Neska sartzekoan, Bey-aren keinuak direla eta ezin du irribarra saihestu. Emakumearen edertasunak txundituta uzten du eta Isabellak ahalik eta zuku gehien atera nahi dio egoerari. Mustafak Taddeo hiltzeko agindua ematen du, baina Isabellak bere iloba dela esaten duenean atzera egiten du. Bitartean, Halyk burla egiten dio gizon zaharrak duen beldurrari. Elvira, Lindoro eta zulma agertzen dira Bey-a agurtzeko asmoarekin. Isabella eta Lindorok elkar ezagutu arren disimulatu egiten dute. Nahasmena nagusi da. Isabellak, Elvira Lindororekin ezkondu eta joatera behartua dagoela jakiten du, eta hori saihesteko Mustafari emakumea gelditu dadila eskatzen dio. Lindoro bere morroi partikularra izatea eskatzen dio. Mustafak, neskari atsegin ematearren, eskatzen dion guztiari baiezkoa ematen dio.

II. ekitaldia

Elvira eta gorteko beste kideak Mustafaren izaera aldaketa komentatzen ari dira bera sartu eta Isabellari ordu erdi barru berarekin kafea hartu nahi duela esateko agintzen duenean. Denak joan eta Lindoro eta Isabella agertzen dira. Isabellak Elvirarekin ezkondu nahi duela aurpegiratzen dio. Lindorok gertatutako guztia azaltzen dionean Argeletik ihes egiteko modua prestatzea erabakitzen dute. Mustafa Taddeo atzetik duela agertzen da, Taddeo kexaka dator, Haly etengabe burua moztuko diola mehatxatuz dabilela esanez. Bey-ak okertuta dabilela esaten dio, bera izan dela etortzeko agindu diona, eta bere Kaimakan izendatu nahi duela (bere ordezkari antzeko zerbait). Taddeok gogo handirik gabe, bere burua salbatzearren izendapena onartzen du.

Isabella, Elvirari gizonezkoak nola manipulatu behar diren azaltzen dion bitartean apaindu egiten da bere gelan. Mustafak Isabella maite duela adierazteko, Taddeo Kaimakan izendatu duela esaten dio. Bey-ak Isabellarekin bakarrik egoteko ahaleginak egingo ditu, alferrik ordea.

Jauregiaren beste aldean Haly emakume italiarrek gizonezkoak limurtzeko daukaten trebetasunari buruz abesten ari da. Taddeok ihesaldi planaren berri izaten du eta Lindorori Isabellaren osaba ez dela aitortzen dio, bere maitalea dela argituz. Lindorok irribarre egiten du, baina badaki bere laguntza beharrezko duela.. Momentu horretan bertan Mustafa iristen da, oraindik haserre dago, Isabellarekin kafea hartzen ari zela sortu den iskanbilagatik. Lindorok, giroa baretzeko asmoz, gertatutakoa, Isabellak Pappataci (jan eta iso)ordena italiarraren barruan egoteko gairitu beharrek frogen parte dela esaten dio, bere herrialdeko gizonezko ezkondu guztiak horren kide baitira. Mustafa lausengatua sentitzen da eta zer egin behar duen galdetzen du. Lindorok jan edan eta lo besterik ez duela egin behar esaten dio eta bere inguruan gertatzen den guztiari ez ikusiarena egin.

Taddeo eta Lindoro Isabellaren ihesaldiari buruz hizketan ari dira: Neskak bey-aren Pappataci taldean sartzeko egingo den ekitaldian parte hartuko duten morroi italiar guztiak berarekin eramango ditu. Taddeok erritua azalduko dio eta Isabellak bitartean, Lindorori laztanak nola egiten dizkion ikusi beharko du bey-ak, proba moduan. Neketsua iruditu arren, Lindorok jan eta edan besterik egin behar ez duela ulertzen du, beti Taddeoren laguntzaz egiten duena. Isabellak, Lindorok eta gainerako morroi italiarrek ihes egiten dute "Taddeok Mustafaren arreta duen bitartean. Mustafa, aholkuei jarraituz, jaten eta edaten ari da, isilik. Engainatua izan dela konturatzerako beranduegi da. Lezioa eman diote eta munduko italiar guztiak baino bere emazte Elvirarekin geratzea nahiago duela erabakitzen du.

Opera bufoa: Opera komikoa izendatzeko erabiltzen den esamolde italiarra. *Opera bufoa* izaera komikoa du eta opera serioaren atsedenaldietan sortu zen *intermezzi* bezala. *Commedia dell'Arter*en pantomimekin lotua dago. Pertsonaia herriko eta bat-batekoak izateaz gain, opera serioak erakusten zuen handitasun eta zurruntasunari egoera berriekin kontrajartzen zitzaion.

Ariketak

Lehenengo ekitaldiaren amaieran, nahasmen izugarriko une batean klimaxa (puntu gorena) heltzen da. Isabellak, Mustafaren morroi gogokoena bere Lindoro maitea dela jakiten du, bera salbatzera etorri dena. Rossiniren amaiera alai eta dibertigarrienetakoa da. Pertsonaiek bere harridura eta emozioak onomatopeiak erabiliz egiten dituzte, hala nola, kanoiaren hotsa egiteko "bum, bum", mailuarena "tak, tak", mikarena "kra, kra" edo kanpaiarena "din, din".

Lehenengo ekitaldiaren amaiera horretan operako zazpi pertsonaiek hartzen dute parte.

Opera batean hiru abeslari edo gehiago badaude eta bertan abesbatzak ere parte hartzen badu, abesbatzak **kontzertante** izena hartzen du.

Zuen ikasleek zati hau entzun dezatela. Hori baliatuz, *kontzertante* kontzeptua azal dezakezue.

Onomatopeiadun kontzertantea

Ikasleei honako hau proposatu:

- Batek nahastu papera egin dezala, buru barruan etengabe din, din, din... egiten ari den kanpaitxo bat balu bezala.
- Beste batek, buruan kra, kra, kra... egiten dion mika bat duela pentsa dezala.
- Hirugarren bati buruak burrunba egin diezaiola, kanoi bat balu bezala: bun, bun, bun ...
- Laugarrenak, azkenik, buruan duen mailu bat pikatzen ari zaiola imajina dezala: tak, tak, tak...

Ikasle bakoitzak, dagokion onomatopeia azkar eta zaratzatsu errepika dezala, denok aldi berean baina bakoitzak bere erritmoa hautatuz. Ariketa ikasgela guztiari zabaldu.

Rap baten antzezipena

Ikasleei, kontzertantearen testuarekin rap bat prestatu eta antzez dezatela eskatu. Bigarren fase batean, kontzertantearen estiloari jarraiki antzez dezakete rapa. Lehenengo lau esaldiak lau bakarlarik egin ditzakete eta bosgarrena, abesbatza papera hartuko duen ikasle talde batek. Nabardurak kontuan hartu beharko dira, abesbatzak bakarlariak estal ez ditzan.

Mi cabeza es la campana
que sonando hace din din.

Mi cabeza es un martillo,
me golpea su tac tac.

Como una urraca desplumada
voy cantando mi cra cra.
Cual disparo de cañones
mi cabeza hace bum bum.

Trastocado mi cerebro
confundido en tantos líos!
No gobierno mi navío,
pronto voy a naufragar!

Erritmo errepikakor hau erabil dezakezue oinarritzat:



Rap: Oinarri errepikakor eta erritmikoari errezitazioa gainjartzen zaion musika mota ezaguna.

Beste ariketa batzuk

Operaren mitologia

Operaren historiaren hastapenetan, argumentuak mitologia klasikoan oinarritzen ziren (*Dafne*, *Euridice*, *Ariadna*, *Orfeo*). Orfeoren mitoa erabiliz Monteverdik opera zoragarria konposatu zuen, C.W. Gluck konpositoreak, mito bera erabili zuen geroago.

Orfeoren mitoa

Orfeo, Traziako Eagro erregearen eta Kaliope musaren semea, poeta eta musikagile handia zen. Apolok lira bat oparitu zion. Orfeok hain ezteki jotzen ikasi zuen, piztiak otzantzeko eta gizon basatien bihotza biguntzeko gai zela. Are gehiago, errekek eta landareak bera entzun ahal izateko isildu egiten ziren.

Orfeo Euridizerekin ezkondu zen. Izugarri maite zuen, baina ezkontza eguneko jaietan, suge pozoitsu batek kosk egin eta hau hil egin zen.

Orfeok ez zuen Euridiceren galera onartzen eta infernuetara jaisteko erabakia hartu zuen, neska salbatzeko. Musikarekin zaindariak eta infernuko furiek pasatzen uztea lortu zuen eta horrela, Plutonen aurrera iritsi zen, infernuetako jainkoarengana eta Euridice itzul ziezaiola erregutu zion. Plutonek, hasiera batean, bere eskariari ezekoa eman zion baina azkenean, baldintza bat betez gero onartuko zuela esan zion: Euridicek, zure itzala balitz bezala jarraituko zaitu baina zu ez zaitez gelditu, ez ezazu berarekin hitz egin eta ez ezazu atzera begiratu gora iritsi arte, argiaren mundura, bestela inoiz ez duzu berriro ikusiko.

Orfeo, esker onez, iluntasunean zehar egin beharreko bidaia abiatu zuen. Aurrera zihoan, bere pausuak bakarrik entzuten zituela, ia atera iritsi arte. Orduan Euridice berari jarraika zegoen zalantza zuen eta atzera begiratu zuen Euridice atzean ote zuen ikusteko. Euridice bere atzean ikusi zuen.

Orfeok ez zuen Plutonek ezarritako baldintza bete eta Euridice betirako galdu zuen.

Glucken lanak, kontakizun mitologikoak ez bezala, amaiera zoriontsua du Maitasuna agertu eta Orfeori Euridice berpiztu eta elkarrekin bizitzen jarraituko dutela esaten baitio.

Euridice galtzean Orfeok sentitzen duen atsekabea Orfeok antzezten duen *Zer egingo dut Euridize gabe...?* arian islatzen da.

Zer egingo dut Euridice gabe...?

Zuen ikasleek aria honen pasarte bat antzez dezatela proposatzen dugu, txirularekin edo abestuz. (cd:material didaktiko osagarria)

Pasartearen testua.

Che faró senza Euridice?	Qué haré sin Eurídice?	Zer egingo dut Euridice gabe?
Dove andró senza il mio ben?	Dónde iré sin mi bien?	Nora joango naiz nire ondasuna gabe?
Che faró, dove andro?	Qué haré? Dónde iré?	Zer egingo dut? Nora joango naiz?
Che faró senza il mio ben?	Dónde iré sin mi bien?	Nora joango naiz nire ondasuna gabe?
Che faró? Dove andró?	Que haré? Dónde iré?	Zer egingo dut? Nora joango naiz?
Che faró senza il mio ben?	Dónde iré sin mi bien?	Nora joango naiz nire ondasuna gabe?

Qué haré sin Eurídice?

(Fragmento)

Orfeo - C. W. Gluck

Flauta



Traviata

Orff taldea: "Brindis"

Ariketa honekin zuen ikasleek Orff musika-tresnekin *Traviata* (G. Verdi) antzeztea proposatzen dizuegu. Horrela, ordenagailu bidez, ikasleen eta obraren antzezpenak konbinatzeko aukera izango duzue horrela behar baduzue, zailtasun handiena duten ahots edo musika-tresnak, zuen ikasleen mailari egokituz.

LA TRAVIATA

(Brindis)

G. Verdi

Arreglos T. Aguilar

Flauta

Carillón y Xilófono

Metalófono

Teclado

Caja china / Maracas

Pandero

Triángulo

Güiro

Platillo

This system contains the first eight staves of the musical score. The Flauta staff (top) features a melodic line with eighth and sixteenth notes. The Carillón y Xilófono staff has a similar melodic line. The Metalófono staff provides a rhythmic accompaniment with eighth notes. The Teclado staff has a simple harmonic accompaniment. The Caja china / Maracas, Pandero, Triángulo, Güiro, and Platillo staves contain rhythmic notation, including eighth notes and rests, indicating the timing for these percussion instruments.

This system contains the next eight staves of the musical score, continuing the instrumentation from the first system. The Flauta staff continues its melodic line. The Carillón y Xilófono staff continues its melodic line. The Metalófono staff continues its rhythmic accompaniment. The Teclado staff continues its harmonic accompaniment. The Caja china / Maracas, Pandero, Triángulo, Güiro, and Platillo staves continue their respective rhythmic parts, with some staves showing more complex rhythmic patterns like eighth notes and rests.

System 1 of a musical score. It consists of nine staves. The top four staves are treble clefs, and the bottom five are bass clefs. The key signature has one sharp (F#). The music features a complex melodic line in the top staff, with various rhythmic patterns including eighth and sixteenth notes. The lower staves provide harmonic support with chords and rhythmic accompaniment.

System 2 of a musical score, continuing from the first system. It also consists of nine staves with the same clef and key signature arrangement. The melodic and harmonic development continues, with similar rhythmic complexity and instrumental textures.

The first system of the musical score consists of eight staves. The top four staves are in treble clef with a key signature of one sharp (F#). The bottom four staves are in bass clef with a key signature of one sharp (F#). The notation includes various rhythmic patterns, including eighth and sixteenth notes, and rests. The system concludes with a double bar line and a repeat sign.

The second system of the musical score also consists of eight staves, maintaining the same clefs and key signature as the first system. It continues the musical notation with similar rhythmic patterns and rests. The system concludes with a double bar line and a repeat sign.

Antzezpen grafikoa

Material didaktikoan aurkituko duzuen eszenatokia baliatuz, Ikasle bakoitzak Allegro Vivace ikuskizuneko eszena edo pertsonaia gustukoena marratu dezake. *Vivaceren* irudia ere badago, marrazteko.

Allegro Vivace jokia

Hemen proposatzen dizuegun jokia betiko antzara-jokoan oinarritua dago, Allegro Vivace ikuskizuna gai nagusizat hartuz. Material didaktiko osagarrian jokoaren taula ikusi eta inprimatu dezakezue.

Jokoaren arauak

Helburua: Taulak proposatzen duen ibilbidea ahalik eta azkarren egiten saiatu behar du jokalaria, 63.zenbakidun laukira tirada batean eta zehatz iritsi arte.

Arauak: 2-4 partaidek har dezakete parte, bakoitzak bere koloreko fitxa duelarik. Taulak kiribilean jarrita dauden 63 lauki ditu, bakoitza bere irudiarekin.

Jokalaria “Vivace” irudia duen laukira iristen bada hurrengo “Vivace” irudira salto egin eta berriro botako du. Betiko jokoari jarraituz eta operaren jatorri italiarra baliatuz jokalaria honakoa esan dezake: **Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace**. Fitxa ABAO TXIKIren logoa duten lau laukietako batean badago, dadoa berriro bota beharko du. Beste lauki bereziren batean badago berriz, jokalaria txanda bat edo gehiago galdu edo lauki kopuru jakin bat aurreratu edo atzeratu dezake. Gainerako laukietan, jokalaria, egindako galderari zuzen erantzun beharko dio, txanda galdu nahi ez badu behinik behin.

Jarraian taula bat txertatu dugu; bertan lauki bakoitzean aurkituko duzuen irudia, jarraitu beharreko ekintza eta proposatzen ditugun zenbait galdera daude. Adinaren eta ikasleen mailaren arabera galderak askatasun osoz molda daitezke.

	Irudia	IRUZKINA	EKINTZA
1	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 5.laukira eta berriro bota ezazu
2	Oihala	Oihala zabaldu arte zain egon beharko duzu	Txanda bat galdu duzu
3	Diorama		
4	"Nagusiaren ahotsa"	Badakizu <i>L'elisir d'amore</i> operako zein pertsonaiak abesten duen "Una furtiva lacrima"?	
5	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 9.laukira eta berriro bota ezazu
6	Zubia	<i>Zubitik zubira</i>	Zoaz 12.laukira eta berriro bota ezazu
7	Figurina	Aipa itzazu operan parte hartzen duten 2 elementu	
8	ABAO TXIKIren logoa		Bota ezazu berriro
9	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 14.laukira eta berriro bota ezazu
10	Maskarak		
11	Florentzia	Zein hiri italiarrean sortu zen opera?	
12	Zubia	<i>Zubitik zubira</i>	Itzuli 6.laukira eta berriro bota
13	"Nagusiaren ahotsa"	Opera bateko zein abeslarik abesten du habanera bat?	
14	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 18.laukira eta berriro bota ezazu

15	Greziar antzerkia		
16	Jacopo Peri		
17	ABAO TXIKIren logoa		Bota ezazu berriro
18	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 23.laukira eta berriro bota ezazu
19	Ostatua	Sparafucile-n ostatuan zaude.	Bi txanda galdu dituzu
20	Monteverdi		
21	Venezia		
22	Commedia dell'arte	Commedia dell'arte laneko pertsonaia bat aipatu.	
23	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 27.laukira eta berriro bota ezazu
24	ABAO TXIKI ren logoa		Berriro bota ezazu
25	"Nagusia ren ahotsa"	Oinarri erritmikoa eta errepikakorra duen musikari errezitazioa gainjartzen zaionean sortzen den musika mota.	
26	Dadoak	<i>Dadotik dadora</i>	Zoaz 53.laukira eta berriro bota
27	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 32.laukira eta berriro bota ezazu
28	Don Giovanni	Zein da Don Giovanni operaren egilea?	
29	W. A. Mozart	Mozartek egindako opera bat aipa ezazu.	
30	Biolina	Zein da operako musika-tresna nagusia?	
31	Putzua	Musikak, zu emozioen putzuan erortzea egin du	Beste jokalaria bat lauki honetatik pasa arte ezingo duzu aurrera egin
32	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 36.laukira eta berriro bota ezazu
33	Georges Bizet	Nor da <i>Carmen</i> operaren autorea?	
34	Kartela: <i>Carmen</i> opera	Zein da tesituragatik emakumezkoen ahotsen artean ahotsik altuena?	
35	Gioacchino Rossini	Zer da kontzertante bat?	
36	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 41.laukira eta berriro bota ezazu
37	Komediante ibiltariak		
38	Gaetano Donizetti	Zein da tesituragatik gizonezkoen ahotsen artean ahotsik altuena?	
39	Dulcamara eta Nemorino	Nor izan zen <i>L'elisir d'amore</i> operaren konpositorea?	
40	Elixir	Elixir magikoei buruz hitz egiten den opera bat aipatu.	
41	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 45.laukira eta berriro bota ezazu
42	Labirintoa	Operak pasio labirintoa askatu du	Bi txanda galdu dituzu
43	Turandot	Nor da Turandot operaren egilea?	
44	Giacomo Puccini	Puccinik egindako opera bat aipa ezazu	
45	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 50.laukira eta berriro bota ezazu
46	Rigoletto eta Gilda	Nola du izena Rigoletto ren alabak?	
47	Gilda	Nork konposatu zuen Rigoletto?	
48	Giuseppe Verdi	Aipa ezazu Verdiren lan bat	
49	Opera libretoa	Zein pertsonaia mitologikok otzantzen zituen piztiak bere musikarekin?	
50	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 54.laukira eta berriro bota ezazu

51	Orfeo eta Eurídice	Noraino joan zen Orfeo bere maitea berreskuratzen?	
52	Kartzela	Orfeoren musikaren edertasunak harrapatu zaude	Hiru txanda galdu dituzu
53	Dadoak	<i>Dadotik dadora</i>	Itzuli 26. Laukira eta berriro bota
54	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 59.laukira eta berriro bota ezazu
55	"Nagusiaren ahotsa"	Aipa ezazu abestuz egiten den musika mota bat. Musika oinarritzko atala da.	
56	Arlekina		
57	Liceuren logoa		Berriro bota
58	Gildaren heriotza	Ene! Zoritxarra! Gildaren heriotzagatik abaildua zaude.	Itzul zaitez 1.laukira eta zure txanda iristen denean berriro hasi.
59	Vivace	<i>Da Vivace a Vivace e tiro perché mi piace.</i>	Zoaz 63.laukitxora
60	Antzerki baten barrualdea	Zer da melomano bat?	
61	Antzerki baten barrualdea		
62	Antzerki baten barrualdea		
63	Antzerki baten barrualdea Vivacerekin	Zorionak!!	Hona iristen den lehenengoa izango da garailea


Antzerkitxo baten eraketa

Material didaktikoan aurkituko duzuenarekin eta eskala bat moldatuz kartoizko diorama handiago bat lor dezakezue. Bertan, ikuskizuneko zenbait agerraldi sortu ahal izango dituzte. Plastika eta ikus-entzunezko irakasgaietan egin daitezke. Ikasleen aukeren arabera dekoratu eta pertsonaia ezberdinak sor daitezke. Opera baten edo Allegro Vivace ikuskizunaren beraren pasarte bat ere antzezpena ere antolatu liteke.

Atrezzo: Eszenografia osatzeko erabiltzen den altzari edo osagarri multzoa. Antzezlarien karakterizazioa eta hauek taula gainean erabiltzen dituzten osagarriak ere atrezzoaren parte dira.

Gurutzegrama

D'ópera



Ezkerretik-eskuinera:

- 1 Musika nota.
- 2 Opera komikoa.
- 3 Alderantziz, diskoteketan dantzatzeko musika egokiena hautatzen duen pertsona.
- 7 Emakumezko ahotsen artean tesitura altuena duen ahotsa.
- 10 "*Allegro Vivace*" ikuskizunean operaren mundua erakusten digun pertsonaia.
- 11 Oinarri erritmikoa eta errepikakorra duen musikari errezitazioa gainjartzen zaionean sortzen den musika mota ezaguna.
- 13 Ardoa elixir magikoa bailitzan saltzen duen doktorea.

Goitik-behera:

- 1 Musika nota.
- 2 Errege edo nobleen gorteetan, besteen ezaugarri fisiko anormalak aitzakiatzat hartuz jendeari barrea eragiten zion pertsona (azken hizkia kenduta).
- 4 Musika nota.
- 5 Gizonezko ahotsen artean tesitura altuena duen ahotsa (azken hizkia kenduta).
- 6 Bere musikarekin fierak otzantzen zituen.
- 8 Musika nota.

9 Abestuz egiten den antzepeña, musika oinarritzko atala da.

12 Musika nota.

Operaren osagaiak

Harremanak

Operen parte diren elementu ezberdinak erlazionatu, dagokion irudiarekin.



ESZENOGRAFIA




MUSIKA



LUMINOTEKNIA



ANTZERKIA



LITERATURA




DANTZA

Eskema

Zuriz dauden koadroetan beharrezkoa den hitza bilatu, jarraian aurkituko duzun zerrendatik bat aukeratuz:

LIBRETISTA – JANTZIAK – KONPOSITOREA – ARGIZTAPENA – MUSIKA
ZUZENDARIA – ABESBATZA – ORKESTRA – ESZENOGRAFIA – MUGIMENDU
ESZENIKOA – AHOTSAK



Hiztegia

- **Atrezzo:** Eszenografia osatzeko erabiltzen den altzari edo osagarri multzoa. Antzezlarien karakterizazioa eta hauek taula gainean erabiltzen dituzten piezak ere hemen sartzen dira.
- **Breakbeat:** Hip-hop-aren oinarrian dagoen erritmoa da.
- **Kaleidoskopia:** Gauza ezberdinen eta koloretsuen segida, azkar aldatzen diren sentsazio edo usteak.
- **Camerata Fiorentina:** XVI. mende amaiera eta XVII. mende hasiera artean Florentzian, Giovanni Bardi humanistaren etxean elkartzen zen poeta eta musikagile taldea.
- **Claca:** Antzerki toki batean, txalotu dezan ordaintzen den pertsona multzoa.
- **Commedia dell'Arte:** XVI.mendean, Italian, aktore talde ibiltariek antzeztzen zituzten komediak. Inprobisatutako txistek, ohiko antzeztzen komikoak (Jazzi), errepertorio klasikoko pertsonaiak eta aurreikusteko moduko amaierak zituzten ezaugarri.Lan hauetako pertsonaietako batzuk *Arlekina*, erronbodun jantzia eta domino maskara deigarriarekin janzten zena, *Colombinak*, *Arlekinen* benetako maitasuna ziren. *Commediaren* antzeztapena kanpoan (estalperik gabe) egiten ziren, *zannien* (la troupe de comicos i payasos) eszenatoki soiletan.
- **Abesbatza:** Aldi berean abesten duen musikari taldea.

- **Crescendo:** Pixkanakako intentsitate handitzea adierazteko erabiltzen den hitz italiarra.
- **Dance:** Dantzarako musika. Jatorriz, musika erritmo eta estilo guztiak biltzen zituen. Gaur egun, *techno* eta *house*etik sortutako mugimenduari deitzeko erabiltzen da batez ere.
- **DJ:** Disc-jokey. Diskoteketan dantza egiteko egokia den musika aukeratzeko duena. Diskoak jartzen dituena.
- **Dub:** Jamaikar jatorria du. Bertsio instrumental bat izendatzeko erabiltzen da, oihartzunak eta efektu soinudunak gehitzen zaizkion bertsioa.
- **Elixir:** Sustantzia sendagarriekin osatutako likorea, sendagaia
- **Glissando:** Sokadun musika-tresnetan lortzen den efektua. Soka baten gainean behatza pasatzean lortzen da, honek lor ditzaken doinu guztiak entzutea lortzen baita.
- **Hip-hop:** *Rapari* sorrera eman zion kultura hiritarra. *Graffiti*a bezalako edo *breakdance* dantzak bezalako adierazpen artistikoak ditu barnean.
- **House:** Oinarriak kultural musikal beltz amerikarra dago. Disko, funk eta techno europarraren eragina dauka.
- **Kitsch:** Zehazki ez bada ere, gustu txarra adierazteko erabiltzen den hitza da. Ikusleen iritzi ezak ereduakotzat daukana imitatzea da eta ia beti, etsipenez oroitzen den garai zaharragoei egiten die erreferentzia, XIX. mende amaierako arte burgesari gehienetan.
- **Libreto:** Musika gehitu zaion lan baten testua izendatzeko erabiltzen da.
- **Melómano:** Musika zale handia den pertsona.
- **MP3:** Audio segidak trinkotzeko erabiltzen den formatua. Audio fitxategiak hamabi aldiz txikitzen du, jatorrizkoaren kalitateari eutsiz.
- **Ópera:** Abestuz antzezteko egindako drama. Orkestraren laguntza eta antzerkiaren ohiko elementu eszenikoak (dekoratua, arropa) ere baditu.
- **Opera bufoa:** Opera komikoa izendatzeko erabiltzen den esamolde italiarra. *Opera bufo*ak izaera komikoa du eta opera serioaren atsedendietan sortu zen *intermezzi* bezala. *Commedia dell'Arte*ren pantomimekin lotua dago. Pertsonaia herrikoi eta bat-batekoak izateaz gain, opera serioak erakusten zuen handitasun eta zurruntasunari egoera berriekin kontrajartzen zitzaion.
- **Pizzicato:** Igurtzeko soka duten musika-tresnetan behatzekin eraginez lortzen diren noten antzezpena.
- **Progressive:** House zein techno estiloak izendatzeko hitza. Genero hau Britainia Handian sortu zen 90. hamarkadaren hasieran. Estilo erraz eta ebolutiboa du eta poparen eta musika exotikoaren perkusio, dub eta sanplak ditu.
- **Rap:** Oinarri erritmiko eta erreplikakorra duen musikari errezitazioa gainjartzen zaionean ematen den musika mota.
- **Rave:** Gertakari musikala, musikari eta dj bilera. Bilera hauek ageriko lekuetan, eraikin hutsetan, hondartzetan... egiten zituzten.
- **Raver:** *Rave* topaketetan ohikoa den pertsonaia.
- **Techno:** Sintetizadore eta estudioko efektuetan oinarritzen den musika.
- **Tesitura:** Ahots mota jakin batek lasaitasunez bete dezakeen nota eremua.
- **Trance:** Laurogeita hamar mende hasieran Alemanian sortu zen techno musikaren aldakia. Erritmo azkarrak eta efektu garratzak dituzten garapen sintetiko luzeak nahasten ditu.
- **Tremolo:** Hots edo akorde baten oihartzun edo erreplikapen azkarra adierazten duen musika hitza. Horrek tremolo efektua eragiten du.

- **Trip-hop:** Hip-hop musikak sortutako generoa, oro har instrumentala izan ohi dena. Oso esperimental da eta hots desberdin ugarietara irekia dago.
- **Utillaje:** Herraminta, musika-tresna... multzoa. Artelan edo lan zehatz bat egiteko beharrezkoak direnak.
- **Vivace:** Partitura batean, lanaren edo pasarte baten *tempo* musikala azkar antzeztu behar dela esan nahi denean erabiltzen den hitza.

Baliabide didaktikoak

Internet

Baliabide honen bitartez, operari buruzko informazio zabala lor dezakegu: garapenaren historia, kritikak, opera ezberdinen argumentuak, libretoak, opera antzokiak ... Jarraian, irakasle zein ikasleentzat baliagarri eta erabilgarri suerta daitezkeen zenbait web orrialderen aukeraketa bat zerrendatuko dugu, bakoitzari iruzkin bat gehituz.

<http://www.abao.org>

Operaren lagunen Bilboko Elkartearen orrialdea da. Gida didaktikoaren informazioa eta denboraldian zehar antzezten diren operen informazioa jaso dezakegu (izenburuak, datak, banaketa, berriak, argazkiak eta abar).

<http://www.weblaopera.com>

Operari eskainitako orrialdea (historia, operari buruzko hiztegia, opera ezberdinen aurkibidea autoreka, azken berriak, iritzi artikuluak...)

<http://operabase.com/es/>

Opera antzezen, jaialdi eta munduko antzokiei buruzko datu basea.

<http://www.operaactual.es/>

“Opera Actual” opera aldizkariaren *online* (internet bidezko) bertsioa.

<http://www.liceubarcelona.cat/es#>

Denboraldiko informazioa jasoko duzue: lanak, datak, aktoreak..., Beste atal batzuk ere baditu. “*Preparaos la opera*” atalak adibidez, antzeztutako lanei buruzko informazio sakona ematen du. Liceoko Gran Teatroren historiari buruzko informazio ugari aurki dezakezue eta baita bisita birtuala nola egin daitekeen jakin ere.

<http://www.aria-database.com>

1000 aria baino gehiago dituen datu basera iristeko orrialdea. Itzulpenak, testuak eta midi fitxategien bilduma dauka. Ingelesez dago.

<http://www.kareol.es>

Kareolen lan askoren itzulpena eta jatorrizko bertsioa aurkituko dugu. Libretoak, laburpenak, diskoak...

<http://www.amicsliceu.com/>

Amics del Liceu elkartearen orrialdea. Liceoan denboraldian zehar antzeztuko diren operari buruzko informazioa dauka.

<http://opera.stanford.edu/main.html>

Glass Opera. Libreto asko dituen orrialdea, oinarrizko hizkuntzan. Beste orrialdeetarako lotura ugari. Ingelesez dago.

Grabazioak

Musikak entzuleari hunkidura helarazi badiezaioke ere, CD eta opera esaten dugunean ez dugu ahaztu behar, baleta edo antzerkia esaten dugunean bezala, operan ikusteko egindakoa dela eta agertoki batean gertatzen dela. Horrela ulertuz gero, diskak edo Cdak euskarri nahikorik ez dutela ikusiko dugu, generoak hitza, musika, keinua, dantza, jantziak, eszenografia... ere beharrezko baititu. Operaz eta beste ikus-entzunezko arteez (zinea edo antzerkia) gozatzeko argumentuak, musikak, argiek, dekoratuek, efektuek eta horiek guztiak ematen dizkiguten emaitzek erakarri behar gaituzte.

Bibliografia

- **ALIER, Roger:** *L'òpera*. Dopesa (Conèixer Catalunya, 23). Bartzelona, 1979
- **ALIER, Roger; GORGORI, Marcel:** *Cinc cèntims d'òpera. Converses d'estiu entre dos amics*. Editorial Pòrtic, Enciclopèdia Catalana. Bartzelona, 2001
- **ALIER, Roger; GORGORI, Marcel:** *Paraula d'òpera. Els termes imprescindibles per a gaudir de l'Òpera*. Pòrtic argitaletxea, Enciclopèdia Catalana. Bartzelona, 2003
- **ALIER, Roger; HEILBRON, Marc; SANS RIVIÈRE, Fernando:** *Història de l'òpera italiana*. Empúries. Bartzelona, 1992
- **ALIER, Roger; HEILBRON, Marc; SANS RIVIÈRE, Fernando:** *La discoteca ideal de la òpera*. 2. argitalpena. Planeta argitaletxea. Bartzelona. 1997.
- **BARQUET, Nicolás:** *Óperas Famosas. Cronología, argumentos y reparto*. 3. argitalpena. Juventud argitaletxea. Bartzelona. 1995.
- **CONRAD, Peter:** *Canto de amor y de muerte (el significado de la ópera)*. Javier Vergara Editore. Madril, Buenos, Bogotá. 1988
- **FRAGA, Fernando; MATAMORO, Blas:** *La ópera*. Acento. Madril, 1995
- **JACOBS, Arthur; SADIE, Stanley:** *El libro de la ópera*. 2. argitalpena. RIALP argitaletxea. Madril. 1998.
- **LANG, Paul Henry:** *La experiencia de la ópera*. Alianza (Música, 11). Madril, 1983
- **LEIBOWITZ, René:** *Historia de la ópera*. Taurus. Madril, 1990
- **MARTÍN TRIANA, José María:** *El libro de la ópera*. Alianza Editorial, Colección El libro de bolsillo, 1284. Madril, 1987.
- **ORREY, Leslie:** *La ópera*. 2. argitalpena. Ediciones Destino. Bartzelona. 1994.
- **OSBORNE, Charles:** *Como disfrutar de la ópera*. Ed. Gedisa. Bartzelona, 1985
- **PAHLEN, Kurt:** *Diccionario de la ópera*. 4. Argitalpena. Emecé Editores. Bartzelona. 1999.
- **PARKER, Roger** (editore): *Historia Ilustrada de la Ópera*. 1. argitalpena. Paidós argitaletxea. Bartzelona. 1998.
- **RADIGALES, Jaume:** *L'òpera. Música, teatre i espectacle*. Enciclopèdia Catalana, Col·lecció Pòrtic. Bartzelona, 1999
- **SCHUMANN, Karl:** *La magia de la Opera*. Philips Classics Productions. 1993
- **SUTHERLAND, Susan:** *Ópera*. Ediciones Pirámide, Aprende tu solo bilduma. Madril, 1999.




Allegro Vivace


Operaren munduan zehar egindako bidaia magikoa


Material Didaktiko Osagarria





A
B
en
ARRIAGA
wiki





ANTZERKI BATEN ERAKETA

Material didaktikoan aurkituko duzuenarekin eta eskala bat moldatuz kartoizko diorama handiago bat lor dezakezue. Bertan, ikuskizuneko zenbait agerraldi sortu ahal izango dituzte. Plastika eta ikus-entzunezko irakasgaietan egin daiteke. Ikasleen aukeren arabera dekoratu eta pertsonaia ezberdinak sor daitezke. Opera baten edo Allegro Vivace ikuskizunaren beraren pasarte bat ere antzezpena ere antolatu liteke.

